


FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak besteen esku utzi ezin daitezkeen eta enpresa bakoitzak egiten dituen jarduerak dira. Hau da, negozioaren ezagutzarekin lotutako guztia ezin da besteen esku utzi. Beraz, funtsezko jarduerak gure enpresan honakoak izan daitezke: ekoizpena, hau da, produktuak diseinatzea (guk eraikiko ditugu). Horretaz gain bezeroen zalantzak argitzeaz arduratuko gara: dituzten arazoak konponduz eta plataformako edo sareko jarduerak kudeatuz, hau da, plataforma teknologikoa mantentzeaz eta sustatzeaz arduratuko gara besteak beste.

Gure taldea den “bMhiX”-en kasuan, ekoizpena da enpresaren gakoa, hau da, guk ekoizten dugun produktua (*EcoBike*-a) diseinatzea, ekoiztea eta bezeroei entregatzeaz arduratuko gara. Gure biltegian bizikletaren piezak izango ditugu eta gure produktua montatu beharko da. Hainbat bizikleta izango ditugu biltegiratuta eta horiek denak banatzeaz arduratuko gara. “*EcoBike*”-a egiteko beharrezko osagaiak beste enpresetatik lortuko ditugu, akordioen bidez. Gure produktua berritzailea dela ikusten dugu, etorkizunari begira aldaketak emango ditu ingurumenean.



Diseinuaz gu arduratuko gara, zehazki lñigo. Sormen handia duelako eta horrelako proiektu zailak aurrera eramatea gustuko duelako. Hasiera batean guk egingo dugu eskulana, eta gure taldeko garajean egingo dugu lana. Lehenengo aldiari modelo bakoitzeko 25 unitate ekoitziko ditugu, salduko direla aurreikusten dugulako. Behin salmentak igo ahala biltegi bat alokatu beharko genuke eta bertan langileak kontratatu eskulana beraiek egin dezaten, eskaria lehen baino handiagoa izango delako.

Hala ere, beste kasuan ez hain funtsezko jarduerak egiteko enpresen laguntza beharko dugu. Adibidez, konponketa zerbitzuak Talleres *Juan Ibañez*-en esku utziko ditugu eta MediaMarkt bezalako dendatan salduko dugu besteak beste.

Arazoen konponketa zerbitzuari informazioa gehituz, “*bMhiX premium*” sailean harpidetza dutenek, Talleres Juan Ibañez enpresak lehentasunaren eskaintza eta diru gutxiago ordaintzearen aukera izango dute arazoen konponketarengatik.

Gure enpresak izan ditzakeen arazoak honakoak dira: Hasteko, lehengairik gabe geratzea izango zen, hori konpontzeko, Segurtasun Stock bat finkatu beharko genuke biltegian erresebak gordez. Beste arazo bat, bezeroei gure produktua atzerapen batekin iristea izan daiteke, hori gertatuko balitz, Vanish Xaboi pakete baten bidez konpentsatuko genuke bezeroa.

Bezeroei gure produktua, hau da, “*Ecobike*”-a kalitatezkoa dela bermatzeko, eta ahalik eta arazo gutxien izango dituztela, produktu berriak ekoizten ditugun bakoitzean kalitatezko test bat egingo diogu haietako “*EcoBike*” bakarrari, sortutako produktu guztiak kalitatezkoak direla bermatuz.



Horrez gain, garrantzitsua da plataformako edo sareko jardueretaz ere arduratzea, ala beste modu batera esanda, plataforma teknologikoak kudeatzea, mantentzea eta sustatzea, izan ere, gure enpresak ez du denda fisiko bat edukiko, hortaz, *Media Markt*-en dendez gain, webgune bat erabiliz salduko ditugu gure produktuak. Gure diru-sarreraren zati handiena produktuaren salmentetatik datorrenez, oso garrantzitsuak dira sareko jarduerak “*bMhiX*” enpresan produktu gehiago saldu ahal izateko.

Ondorioz, negozioak aurrera egin dezan, aurretik aipatutako jarduerak egiteaz gure enpresa arduratuko da. Bestalde, gauza batzuk errazteko asmoz, beste enprekin ere akordio batzuk egingo ditugu, adibidez, materialak lortzeko edo bestelako

konponketak egiteko, guretzat egiteko zailagoak direnak. Gure helburua enpresaren hedapena eta diru sarrerek maximizatzea, honekin “*bMhiX*” enpresaren hazkundea lortzen saiatuko gara.